



EBAZPENA, 2023ko abenduaren 12koa, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearena, 2023-2024 ikasturtean pertsonal ikertzailearen prestakuntza-programarako dirulaguntza berriak eman eta dirulaguntza horiek berritzeko prozesua arautu eta deitzen duen Hezkuntza sailburuaren 2023ko ekainaren 20ko aginduaren bidez deitutako dirulaguntza berriak ebazten dituena.

Ikerketa Orokorrean, eskaeren ebaluazioa eta Selektzio Batzordeak helarazitako proposamena kontuan hartuta eta aipatutako Aginduan xedatutakoa betez,

EBAZTEN DUT:

Lehena.– I. eranskinean agertzen diren onuradunei ikertzaile ez doktoreen prestakuntzarako dirulaguntza berriak ematea, 2023-2024 ikasturterako, onuradun bakoitzak jasoko duen zenbateko gordina, ezarpen zentroa eta hauek lan kontratuak finantzatzeko beharrezko zenbatekoa adieraziz.

Kontratuak 12 hilabeterako izango dira.

Bigarrena.– II. eranskinean agertzen den ordezkoen zerrenda ezartzea, lerroak, arloak eta lehentasunaren arabera zehaztuz. Hutsuneak gertatuz gero, hauek 31. artikulua zehazten duen bezala beteko dira.

Hirugarrena.– III. eranskinean agertzen diren ez onartutako eskatzaileen zerrenda onartzea, ez onartzearen arrazoiak zehaztuz.

Laugarrena.– IV. eranskinean aukeratze-prozesutik kanpo gelditu diren pertsonen zerrenda onartzea, kanpo geratu izanaren arrazoiak zehaztuz.

Bostgarrena.– Dirulaguntza horien zenbatekoa, iraupena eta jasotzeko gainontzeko baldintzak 2023ko ekainaren 20ko aginduak xedatutakoaren arabera erabakitzea.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Interesatuak Hezkuntza sailburuari gorako errekurtsoa jarri ahal izango diote administrazio-bideari amaiera ematen ez dion ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, www.euskadi.eus egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko abenduaren 12an.

ADOLFO MORAIS EZQUERRO
Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea